

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 341/2025 Foru Agindua, ekainaren 11koa. Onestea martxoaren 12ko 93/2025 Foru Arauaren aldaketa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien aldi baterako elkartasun zergaren 2024ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko arauak eta modalitateak onesten dituen

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren martxoaren 12ko 93/2025 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren 2024ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko arau eta modalitateak.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Aldatzea:

— Lehenengoa: 2024ko ekitaldiari dagozkion pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak aurkezteko epea arautzen duen martxoaren 12ko 93/2025 Foru Aginduaren 4. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren puntuak, honela:

Hau dioen lekuan:

2. "rent@raba":

— Amaiera eguna: 2025eko ekainaren 25a.

3. "rentared":

— Amaiera eguna: 2025eko ekainaren 25a.

4. Ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren aitortpenak:

— Amaiera eguna: 2025eko ekainaren 25a.

Hau esan behar du:

2. "rent@raba":

— Amaiera eguna: 2025eko uztailaren 4a.

3. "rentared":

— Amaiera eguna: 2025eko uztailaren 4a.

4. Ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren aitortpenak:

— Amaiera eguna: 2025eko uztailaren 4a.

— Bigarrena: Aipatutako foru aginduaren 5. artikuluari "Hiru" apartatua gehitzea, zeinaren bidez arautzen baita 2024ko ekitaldiari dagozkion kuoten "ordainketa", honela:

"Hiru. Salbuespenez, uztailaren 4a arte luzatuko da hauen kuoten mugaeguna: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ehuneko 60koa edo zenbateko osoa eta ondarearen gaineko zergaren eta fortuna handien gaineko aldi baterako elkartasun zergaren kuotak, ordainketa gutun bidez ordaintzen badira"

“AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honetako xedapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta 2024ko ekitaldiko aitorpenei aplikatuko zaizkie”

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 11

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA